

Pelota / Ostikoketa / Korrikalariak

El Diario Vasco, [1947].

Pelota. – Donosti'ko pelotazale batek orain ur artan bildu dan Pelota Batzarrari bialdu dion idatzi zati bat erakutzi azi nai dizutet lendabizi, bere mamia ba'du ta. Ona emen Arzelus'tar Joseba'k zakearen gañean zer dion: "Zergatik zakea lenen atera duanak jardun bear du zakea bere ezkuan duala tantoak bere alde atera ditun bitartean? Nere uztean, zakea jokatzale batetik bestera erabilli bear litzake aitako batek bi tanto, bat bestearen atzetik, atera arte. Onela, zaketik ateratako tantoa ezik beste bat atzelari jokatzan atera bearko luteke jokatzalleak orain arte egiten dan antzera, tantoa ateratzen duanak zakearen eskubidea izateko". Bere mamia ba'duala ezan det. Orain arte oiturak gaur jokatzan da bezela erakutzi ba'digu ere, zakeak ematen duan aurrerapena ez dedilla txanpon baten arpegia asmatzeak ematen duan eskubidea bakarrik izan, pelotan jokatu ta gero irabasten dan eskubidea baizik. Gaur antz onetara oldozten duenak asko dira ta Pelota-Batzarrak ezer erabaki baño lenago gai onetaz batzardunen artean gora-bera egokiak izango dituzte.

Bilbao'ko "Deportivo"an, Atano III ta bere anai IV'k, lau tantoz Onaindia ta Arriaran II'ari irabazi diote. Bi aurrelariak, Atano III ta Onaindia, joku ikusgarria erakutzi ta gero, oraindik txapeldun zarra geiago dala adierazi zuan. Azkoiti'arrak bi'bita jokatzan oraindik nagusi dala erakusten lan aundirik ez dauka. Donosti'ko "Gros"en Akarregi'k egin izan ez zuana, Onaindia'ri irabazi, Atano'k egin du Bilbao'n.

1946'garren urtean izan dan pelotaririk onena, Gallastegi'tar Mikel, Eibar'ko "Astelena"n 21-22 galdu du Egia-Aboitiz'en aurka, eta ori iru terditik zakea neurtuta zaukatela. Ona tantoetan erabilli zituzten gora-berak: 4-1, 4-4, 5-5-, 11-11, 14-11, 14-14, 19-19, 21-19, 21-22.

Txistera jokuan (remonte), Goikoetxea II'na jokalaririk onena bezela aukeratu genezake oraingoz, Abrego'ren urrun, zer ezanik ez dago. Etxeberria atzelari duala, Donosti'ko "URUMEA"n Arano II ta Iturain'eri ondo irabazi diote.

Atano III ta Gallastegi, aurrez-aurre, ikusiko ote ditugu egun gutxi barru?

Ona emen pelotazaleak ikusteko oso zale dauden ekiñaldi gogorra. Eskuetatik ondo ba'dago Azpeitia'rra, ba'liteke ilbeltzaren azken aldera bi pelotari oyek bakarka aurrez-aurre ikustea.

Abrego I ta Arregi'k, zazpi tantoz irabazi diote Arretxea, Goikoetxea II ta Iturain'eri. Abrego'ren ankeko miña azi ezkeroztik au da lendabizi jokatzan duan partidua eta lenengo urteeran egiteko lan bikain ta jakintzua egin zuan.

Ostikoketa. – Ego Amerika'ko San Lorenzo de Almagro'k egiten duan jokuarekin arriturik geratu gerade emen. Ango jokutik emengora alde aundia baidago, berez ere, jokatzeko eran! Oiek emengoak baño ostiko motxagoa izan arren pelotan lekuan berak, jokalaria, joaten dira aurrera, oso maiz edo zarri bata besteari pelota botatzen dutela;

anketan pelota erabiltzeko erretazun aundia daukate ta bere artean ondo konpondu ezik bakoitzak bere lekua ondo gordetzen ta bere aurrean dauken jokalariai iges egiten yayoak dira. Ez diote, onela, emengoari berak dakiten bezela jokatzeko utzi. España'ko jokalariai aukeratu ditun Hernández Coronado'rentzat izan dira itz gogorak eta emengoak diotenez erru guztiak berarenak, bear dan bezala irabazi ez dalako. Argentina'ko San Lorenzo de Almagro'k lendabizikoa Madrid-en joka zuan ta berartan, emengo uztearen aurka, irabazi. Andik aurrera beste batzuek jota ditue eta ona emen zein irabazi ta galdu dituen:

Madrid'en: Atlético Aviación: 1 - San Lorenzo: 4

Madrid'en: Real Madrid: 4 - San Lorenzo: 1

Selección: 5 - San Lorenzo: 7 (Barcelona'n)

Bilbao'n: Atlético Bilbao: 3 - San Lorenzo: 3

Selección: 1 - San Lorenzo: 6 (Madrid'en)

Coruña'n: Deportivo Coruña: 0 - San Lorenzo: 0

Ikusten dan bezela, San Lorenzo'k, seitatik iru irabazi ditu, biretan berdin geratu ta bat besterik ez galdu.

Ona emen zeintzuk joka zebeu Barcelona'n, 7-5 geratu ziratenian:

San Lorenzo: Blazzina, Crespi, Bossa; Zubieta, Greco, Colombo; De la Mata, Ferro, Pontoni, Martini ta Silva.

Selección: Bañón, Alvaro, Curtá; Gonzalvo III, Fábregas, Gonzalvo II, Epi, Arzá, Lángara, Herrerita ta Escudero.

Ta Madrid'en 6-1 geratu zidanean:

San Lorenzo: Bazzina, Crespi, Gossa; Zubieta, *Rodríguez* (Greco'ren tokian), Colombo; De la Mata, Ferro, Pontoni, Martini ta Silva.

Selección: Bañón, Querejeta, Aparicio; Gonzalvo III, Mencia, Eguíluz, Iriondo, Arza, Zarra, Campos ta Epi.

Ilbeltzaren 26'an Portugal'en jokatu duenak: Bañón, Querejeta, Curtá, Gonzalvo, Bertol, Nando; Iriondo, Panizo, Zarra, César ta Gainza izan dira ta 4-1 galdu Lisboa'n. Emezazpi bider jokatu dute oiek berak eta lenengo galdu Españarrak.

Azpeitiko "Lagun-Onak", "Eibar", Donostia'ko "Lagun-Artea" ta Andoain'go "Euskalduna Andoaindarra" igo dira bigarrendik lenengo mallara Gipuzkoan.

Korrikalariai. – Ilbeltzaren 26-an "Fortuna" k Donostia'n antolatu duan korroka apustua Escudero'k irabazi du, Gariñ'en aurretik, lenengo mallan. Bigarrengoan Andoain'go Izagirre zartu da lenen, Euskalduna Andoaindarra'tik urten da.

Zukunza ta "Txikito" k 50.000 laurleko bota dituzte aurretik, Tolosa'ko sesen enparantzan ta Lekunberri'ko bide zabalean bi apustu jokatzeko. Lendabizi, epaillaren 23'an Tolosa'ko sesen enparantzan amar milla metro, amabost egun gero Lekunberri'n 18. 25.000 laurleko jasoko ditu bakoitzean irabazten duanak. "Aya'ko Txikito" ta "Aranguren-berri" ri irabazitakoak dira biak eta irabazten xamurrak ez.